

Datu hauek guztiak kontuan izanik, Euskaltzaindiak uste du *hiru* zenbatzailea salbuespentzat jo behar dela euskal deklinabidean eta horregatik hauxe erabakitzen du:

1) *Hiru* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *hiru, hirua, hiruak (abs); hiruk, hiruak, hiruek (erg), e.a.*

2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma osoa berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

Hiru

mugagabea	plurala
<i>hiru</i>	<i>hirurak</i>
<i>hiruk</i>	<i>hirurek</i>
<i>hiruri</i>	<i>hirurei</i>
<i>hirurik</i>	—
<i>hirutan</i>	<i>hiruretan</i>
<i>hirutako</i>	<i>hiruretako</i>
<i>hirutatik</i>	<i>hiruretatik</i>
<i>hirutara</i>	<i>hiruretara</i>
<i>hiruren</i>	<i>hiruren</i>
<i>hirurekin</i>	<i>hirurekin</i>
<i>hirurentzat</i>	<i>hirurentzat</i>
<i>hirurez</i>	<i>hirurez</i>

3) Hau *hiru* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez hamahiru, hogeita hiru, berrogeita hiru eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea hamahiruak, hogeita hiruak, berrogeita hiruak, e.a. baitira.

Adibidea: Atzoko *hirurak* etorri ziren, baina beste hamahiruak etxean gelditu ziren.

3. *Lau* zenbakiaren kasuan Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

1) *Lau* izena denean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko da: *lau, laua, lauak (abs); lauk, lauak, lauek (erg), e.a.*

2) Izenordain baten funtzioa duenean (alegia, sintagma berak bakarrik osatzen duenean), honelaxe deklinatuko da:

Lau

mugagabea	plurala
<i>lau</i>	<i>laurak</i>
<i>lauk</i>	<i>laurek</i>
<i>lauri</i>	<i>laurei</i>
<i>laurik</i>	—
<i>lautan</i>	<i>lauretan</i>
<i>lautako</i>	<i>lauretako</i>
<i>lautatik</i>	<i>lauretatik</i>
<i>lautara</i>	<i>lauretara</i>
<i>lauren</i>	<i>lauren</i>
<i>laurekin</i>	<i>laurekin</i>
<i>laurentzat</i>	<i>laurentzat</i>
<i>laurez</i>	<i>laurez</i>

3) Hau *lau* zenbakiari bakarrik dagokio eta ez hamalau, hogeita lau, berrogeita lau eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea hamalauak, hogeitalauak, berrogeitalauak, e.a. baita.

4) Analogiaz sortu diren zazpirak, zortzirak eta horrelakoak bigarren mailan utzi beharko lirateke euskara idatzian, hauek bokalez bukatutako izenak bezala deklinatzen baitira: *seiak, seietan, seietatik, e.a.*

Adibidea: Atzoko *laurak* etorri ziren, baina beste hamalauak etxean gelditu ziren.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)